# Ia 3.000 pertsona hurbildu ziren joan den astean Montehermoson egindako marrazki azokara

**Gaur arratsaldean "Hau ez da" erakusketa interaktiboa inauguratuko da bertan, Mazoka sustatu duen talde berak antolatua**

Joan den asteburuan Montehermoso kulturunean antolatu zen marrazki azokak –Mazoka– oso harrera ona izan zuen. Zehazki, 2.876 pertsona hurbildu ziren Ilustrapados taldeak antolatutako ilustrazio eta marrazkien azokara.

Bestetik, gaur arratsaldean hasita urtarrilaren bukaerara arte, marrazki eta ilustrazio profesionalek eta zaleek osatutako talde horrek "Hau ez da. Berriz sentitutako objektutik irudikatutako objektura" erakusketa interaktiboa eskainiko du, irudiak sortzeko prozesua erakutsi eta **bisitariekiko interakzioa eragiteko.**

Objektu "errealak", arruntak, abiapuntutzat hartuz, marrazkilari, margolari edo argazkilari batek irudia egingo du zuzenean, museoan bertan, eta prozesu osoa pausoz pauso dokumentatuko da (zirriborroak eta bat-bateko argazkiak), errealitate jakin bat osatzen duten alderdi ezberdinen irudikapen osoa eta xehea sortzeko.

Hainbat egilerekin errepikatuko da ekintza, banako bakoitzaren prozesuen arteko aldeak azpimarratzeko. Hartara, sortzaileen hurrenez hurreneko esku-hartzeak eta irudikatzearen emaitzak erakusketa osatuz joango dira:

- Abenduak 18, ostirala: **Ángel Remírez de Ganuza**
- Abenduak 22, asteartea: **Xabier Sagasta**
- Abenduak 30, asteazkena: **Karen Warner**
- Urtarrilak 4, astelehena: **Yolanda Mosquera**
- Urtarrilak 8, ostirala: **Aritz Muro**
- Urtarrilak 12, asteartea: **Pili Aguado**
- Urtarrilak 16, larunbata: **Koldo Mendaza eta Piko Zulueta**

Erakusketak irauten duen bitartean bi lantegi emango dira, urtarrilaren 2an eta 23an, bata umeentzat eta bestea helduentzat, zeinetan "Hau ez da" proiektuaren ezaugarriak eskala txikian errepikatuko baitira.

# Cerca de 3.000 personas se acercaron a la marrazki azoka de Montehermoso celebrada el pasado fin de semana

**El centro cultural del Casco Histórico acoge desde esta tarde la muestra interactiva "Esto no es" organizada también por los impulsores de Mazoka**

Mazoka, la marrazki azoka celebrada el pasado fin de semana en el centro cultural Montehermoso, fue acogida con éxito por el público gasteiztarra. Cerca de 3.000 personas (2.876) se acercaron a este mercado de la ilustración y dibujo organizado por el colectivo Ilustrapados.

Desde esta tarde y hasta finales de enero, el colectivo integrado por profesionales y apasionados del Dibujo e Ilustración ofrecerá la muestra interactiva "Esto no es. Del objeto (re)sentido al objeto (re)presentado" que llevará al museo el proceso de realización de imágenes y **que pretende interactuar con los visitantes.**

Partiendo de una serie de objetos "reales", cotidianos y comunes, un dibujante, pintor o fotógrafo realizará una imagen en directo en el mismo museo de forma escalonada en el tiempo y todo el proceso se documentará para crear una representación completa y detallada de los diversos aspectos que configuran una realidad concreta.

Esta acción se repetirá con diferentes autores y autoras a fin de resaltar las diferencias en el proceso de cada individuo, de forma que la muestra se irá completando con las intervenciones sucesivas de los siguientes creadores, en las siguientes fechas:

- Viernes 18 de diciembre: **Ángel Remírez de Ganuza**
- Martes 22 de diciembre: **Xabier Sagasta**
- Miércoles 30 de diciembre: **Karen Warner**
- Lunes 4 de enero: **Yolanda Mosquera**
- Viernes 8 de enero: **Aritz Muro**
- Martes 12 de enero: **Pili Aguado**
- Sábado 16 de enero: **Koldo Mendaza y Piko Zulueta**

Durante la exposición se impartirán dos talleres, uno para niños y otro para adultos, los sábados 2 y 23 de enero respectivamente, en los que se reproducirán las características del proyecto "Esto no es" a pequeña escala.